

IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA

Pribatutasun-politika

Pribatutasun-oharraren bidez, herritarrei, datu pertsonalen titularrei, haien datuen tratamenduari dagozkion berriazko alderdien berri ematen diegu, besteak beste, honako hauena: tratamenduen helburuak, haien eskubideak gauzatzeko harremanetarako datuak, informazioa kontserbatzeko epeak, datuen tratamendua egiteko legitimatzen gaituen araua eta egindako datu-komunikazioak.

Webguneko formularioen bidez jasotako datu pertsonalen tratamenduak xede dauka Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoarekin kasuan-kasuan ezartzen den harremanari eustea, bai eta informazio-zereginak eta Erakunde Autonomoak berezko dituen beste egitekoak gauzatzea ere.

INFORMAZIO OROKORRA.

DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Identitatea: Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoa

Posta-helbidea: Oliveto kondearen etorbidea, 4-2. ezkerre 31002

Telefonoa: 948420098

Datuak babesteko ordezkaria: protecciondedatos@pamplona.es

ESKUBIDEAK

Datuen babesari buruzko arauak eskubide jakin batzuk ematen dizkiete datuen titularrei, Iruñeko Udalaren eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren webgunearen erabiltzaileei edo sare sozialetako profilen erabiltzaileei.

Hona interesdunei dagozkien eskubideak:

Datuetan sartzeko eskubidea: eskubidea informazioa eskuratzeko, honako hauei buruz: berari buruzko datuen tratamendua egiten ari ote den, egiten ari den tratamenduaren helburua, kasuan kasuko datuen kategoriak, hartzaileak edo hartzaile-kategoriak, datuak kontserbatzeko epea eta datuen jatorria.

Zuzentzeko eskubidea: eskubidea datu pertsonal okerrak edo osagabeak zuzentzeko.

Ezabatzeko eskubidea: eskubidea datu pertsonalak ezabatzeko, honako kasu hauetan:

- Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, zertarako bildu ziren eta horretarako.
- Titularrak adostasuna bertan behera uzten badu.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu.
- Datu pertsonalak ezabatu behar badira lege-betebehar baten indarrez.
- Datu pertsonalak jaso badira informazioaren gizarteko zerbitzu bat dela medio, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 8. artikulua 1. zenbakian ezarritakoari jarraikiz.

Aurka egiteko eskubidea: eskubidea tratamendu jakin baten aurka egiteko, tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen bada.

Mugaketa-eskubidea: eskubidea datuen tratamendua mugatzeko, honako kasu hauek:

- Interesdunak datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten badu, enpresak datuon zehaztasuna egiaztatzeke adinako epe batez.
- Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datuak ezabatzearen aurka egiten badu.
- Enpresak jadanik behar ez baditu datuak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, eta enpresaren arrazoi legitimoak interesdunaren gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

Interesdunek adierazitako eskubideak gauzatu ahalko dituzte Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia, 2) edo Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bulegoetara (Oliveto kondearen etorbidea, 4, 2, ezkerra) zuzenduta, edo egoitza elektronikoaren bidez, idazki bat eta beren nortasuna egiaztatzeke agiria aurkeztuz.

Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril) idazki bat aurkeztuta edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).

DATUEN TRATAMENDU-ZERRENDA

ERAKUNDEKO LANGILEAK - LANGILEEN KUDEAKETA

Helburua: Interesdunei buruzko informazioa honako kudeaketa hauetarako erabiltzen da: langileen kudeaketa, langileen espedienteak, langileen nominak egitea, langileen prestakuntza, ordutegien kontrola, laneko arriskuen prebentzioa eta osasun-zaintza.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldian kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean.

- Lan-agiriak: gutxienez 3 urte
- Gizarte Segurantzari buruzko agiriak: gutxienez 4 urte
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko agiriak: gutxienez 5 urte

Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Legitimazioa:

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Datuen hartzaileak: Datuak honako hauei lagako zaizkie: Gizarte Segurantzako eta Ogasun Publikoko erakundeak, Lan Ikuskaritza, Enpleguko Institutu Nazionala eta Erakundeak, indarreko legeak betez.

LAN PUBLIKOKO DEIALDIAK

Helburua: Botere publikoez baliatuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzea.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldian kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

BEHIN-BEHINEKO IZEN-EMATEA ETA MATRIKULAZIOA – HAUR ESKOLA

Helburua: Izen-emateen eta matrikulen gaineko kudeaketa-lanak egitea. Izena emateko prozesuen emaitzak jakinaraztea eta itxaron-zerrenden berri ematea; informazio horiek iragarkietan txertatuko ditugu, Haur Eskolen Erakundearen webgunean eta bulegoetan zein eskoletan jarritako zerrenden bidez.

Eskoletako behin betiko onarpena kudeatzea, eta izan daitezkeen itxaron-zerrendak mantendu eta kudeatzea.

Oinarri Juridikoa: Legitimitaturik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.
- 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatik nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Nafarroako Foru Komunitatean.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldian kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzailak: Datuak Nafarroako Gobernuari lagako zaizkio, indarreko legeak betez.

IKASLEEN ARRETA ZERBITZUA

Helburua: Eskolako haurrei arreta-zerbitzua ematea haur-eskola guztietan.

Guraso edo tutoreak jakinaren gainean jartzea beren seme-alaben bilakaerari buruz, eta eskolarekin bilera orokorrak zein banakakoak deitzea.

Oinarri Juridikoa: Legitimitaturik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten

ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

- 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatiko nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Nafarroako Foru Komunitatean.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldian kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak Nafarroako Gobernuari lagako zaizkio, indarreko legeak betez.

HISTORIA PEDIATRIKOA

Helburua: Haur-eskolako umeei arta medikoa ematea, hala pediatria-zerbitzuaren eskutik nola psikologoarenetik.

Oinarri Juridikoa: Legitimitaturik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.
- 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatiko nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Nafarroako Foru Komunitatean.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldian kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak Nafarroako Gobernuari lagako zaizkio, indarreko legeak betez.

ORDAINAGIRIEN KUDEAKETA

Helburua: Ordainagiriaren kudeaketa egitea, haiek kobratzeko, kontrolatzeko eta ordaindu gabeko agiriak premiamendu bidez igortzeko.

Oinarri Juridikoa: Legitimatutik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldiaren kontserbatuko dira, eta biltegiatuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboari eta Dokumentuari buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak Nafarroako Gobernuari lagako zaizkio, indarreko legeak betetz.

ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEEN KUDEAKETA

Helburua: Administrazio-espedienteak bideratu eta kudeatzea.

Oinarri Juridikoa: Legitimatutik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldiaren kontserbatuko dira, eta biltegiatuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboari eta Dokumentuari buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak honako hauei lagatzen ahalko zaizkie: notarioak, abokatuak eta prokuradoreak, Nafarroako Gobernua, Organo Judizialak, Kontuen Auzitegia eta Arartekoa, betiere indarreko legeak betetz.

HORNITZAILEEN KUDEAKETA - LIZITAZIOAK

Helburua: Kudeaketari eta lizitazioari bidea ematea, hornitzaileak hautatzeko, haiei ordaintzeko eta haiekin komunikatzeko zein harremanak edukitzeko.

Oinarri Juridikoa: Legitimatutik gaude datuen tratamendua egiteko, honako lege hauek ematen dizkiguten botere publikoak betetzeari begira (DBEO, 6.e artikulua):

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak aipatu helburua betetzeko behar den aldiak kontserbatuko dira, eta biltegiatuko dira Erakundeari datu horien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik egon bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak kontserbatzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak honako hauei lagatzen ahalko zaizkie: Nafarroako Gobernua, Organo Judizialak, Kontuen Ganbara eta Arartekoa, betiere indarreko legeak betez.